

Aljertik barrena

Duela 17 urteko prozesuaren azterketa egin dute Eugenio Etxebestek, mahai hartan ETaren ahotsa izan zenak, eta Iñigo Iruinek eta Rafa Diezek, erakunde armatuko solaskidearen aholkulari izan zirenek

IMANOL MURUA URÍA - DONOSTIA

ETaren eta Espainiako Gobernuaren arteko harremanak, zuzenak eta zeharkakoak, ugariak izan dira frankismoaz geroztik; baina behin baino ez dute egin elkarrizketa prozesu formala: Aljerren, 1989an. Bi aldeek su-etena hitzartu eta errespetatu zuten bi hilabetez, eta bost bilera formal egin, Aljeriako Gobernua fede emaile zela. Akordioa lortu zutelakoan altxa ziren mahaitik ETaren ordezkarietako hiru kideak martxoaren 23ko goizean; baina etena berehala etorri zen: ETak, agiri baten bidez, akordioaren berri eman zuen, baina Espainiako Gobernuak ez zuen halakorik aitortu. PSOEren gehiengo osoaren garaiak ziren, Felipe Gonzalez gobernuburu eta Jose Luis Corcuera Barne ministro zirenekoak, Jose Antonio Ardanza Eusko Jaurlaritzako lehendakari eta Ajuria Eneko Ituna sinatu berria.

«Ez zen porrota izan, esperientzia bat baizik», dio orain Eugenio Etxebeste *Antton*-ek. «Aljer pasatu gabe, orain ez ginatke egongo gauden lekuan». Iñaki Arakama eta Belen Gonzalezekin batera, ETaren ahotsa izan zen Etxebeste Aljerko Mahaian, Juan Manuel Egiagarai eta Rafael Vera Espainiako Gobernuaren ordezkarietako egindako bilerekin. Baina ez ziren bakarrik izan. Aholkulariak zituzten aparteko gela batean: Iñigo Iruin, Rafa Diez eta Iñaki Aldekoa ia beti eta Luis Nuñez, Txema Montero edo Tasio Erkizia inoiz. Bihar, urtarilak 8, hamazazpi urte beteko dira ETak Aljerko Mahaia osatzeko atarian 15 eguneko su-etena eman zuela. Geroztik lehen

aldiz, Aljerren gertatuaz gogoe-ta egin dute Etxebestek, Iruinek eta Diezek.

AURREKO HARREMANAK

Nolatan ahalegindu zen Espainiako Gobernua, une hartan hain zuten ere, elkarrizketaren bidean?

Eugenio Etxebeste: Bi aldeen arteko konfrontazioa oso irekia izatera heldu zen garai hartan, eta Estatuak [ETA] erakundearen eta ENAM osoaren aurkako bide errepresiboak bete-betean erabili zituen, ZEN planarekin eta GALEkin. Baina, bere esku zituen bi tarteko guztiak baliatuta ere, Estatuak ezin zion auziari irtenbiderik eman.

Rafa Diez: Euskal Herriak Espainiako Estatuarekin duen gatazka politikoa neutralizatzeko porrotaren isla da Aljer. Aljerrek dimentsio osoan erakutsi zuen gatazka indarrean zegoela, 1978-79an abiatutako tresna politikoko Estatuak ezin ziola hemengor borroka politikoa erantzun. **Iñigo Iruin:** PSOE 1982an Gobernura heldu zenean, garaipen politikoa militarren aldeko apustua egin zuen, baina lauzpabost urteren buruan porrotaz jabetu zen, hainbat arrazoiengatik. Batetik, garai hartan ezker abertzalea indartsu zegoen, bai hauteskundetan bai mobilizazioetan. ETaren presioa handia zen; min egiten zion Estatuari. Bestetik, PSOEk posizio hegemonikoa zuen Estatuan. Euskal Herrian, EAJ ahul zegoen, zatiketaren ondorioz batik bat, PSOEren esku-tik jokatze behararekin. Eta PSOEk Ajuria Eneko Ituna bultzatzeko baliatu zuen egoera hori. Baldintza horiekin beste irten-

Prozesuaren faktoreak

- » PSOEren posizio hegemonikoa
- » Bide errepresiboetatik bukatzeko estatuen ezintasuna
- » ETaren gaitasun militarra

Hausteko arrazoiak

- » Alderdi politiko gehienek ez zuten auzitan jartzen esparru politikoa
- » Estatuak ezker abertzalea neutralizatu nahi zuen, ez gatazka konpondu
- » Aljerren negoziazio teknikora muga zitezen nahi zuen Ajuria Eneko Mahaiaik

bide bat bilatzen ahalegindu zen.

Frantziako Gobernuaren jokabideak izan zuen eraginik?

Iruin: Garrantzia izan zuen. Espainiako Estatuak Frantziakoaren onespenerekin —eta batzuetan laguntzarekin— gauzatu zuen apustu politikoa-militarra. Baina une batean Espainiako Estatuaren aparatuen jokabideak halako kostua eragin zion Frantziako Estatuari, eta gelditzea erabaki zuen: Bidarraiko bikotearen 1986ko hilketa, Garcia Gonenaren aurkako 1987ko uztailako

atentatua... eta Latchen hurrengo hilean Mitterrandek eta Gonzalezek egindako bilera. Frantziako Estatuak lankidetzaren erpresiboa eskaintzen jarraitu zuen, baina, orduetik aurrera, errefuxiatuei zuzenean Frantziako Estatuak jazarri zien, eta ez Espainiako polizia eta guardia zibilek Frantziako Estatuaren baimenarekin. Ez da kasualitate Gonzalezen eta Mitterranden arteko bilaren ondoren, irailean, Euskal Herri osoan 250 lagun aurreratuak sarekara egin izana mugaren bi aldeetan Santi Arrospe de Atxilotu ondoren. Frantziako Gobernuaren jarrera aldaketa hark ere baldintzatu zuen Espainiako Gobernuaren aldaketa.

Nola hasi ziren ETaren eta Espainiako Gobernuaren arteko harremanak?

Etxebeste: Aljerren aurretik saio ugari egin zituzten, bide espainiarretik nahiz frantziarretik, erakundearekin harremanetan jartzeko. Mezulari asko. Erakundearen iritziz, ETaren zuzendaritza non zegoen antzemateko polizi saioak gehiago ziren, inon esertzeko saioak baino. Baztertu egin ziren, seriotasunik gabeak zirelako. Baina makilaren eta azenarioaren politika funtzionatzaren ari zela ikusten zen.

Deportazioak ere politika horren parte ez ziren?

Etxebeste: Bai. Gobernuak zailtasunak izan ditu beti erakundearengana iristeko. Eta une jakin batean deportatuaren figura agertu zen, Gobernuak fisikoki erakundeko pertsona kualifikatu batzuek hiltzeko modua izan zezan. Bide hori Txominekin [Iturbe] hasi zuten. Txomin atxilotu zutenean arazorik gabe

sar zezaketean kartzelan eta hamar urtez han eduki, baina ez. Ikuspegi bikoitzarekin jokatu zuten: batetik, ETako pertsona kualifikatu bat eskura zeukaten eta, bestetik, egoera ahulean zeukaten. Txominekin egin zuten, munduan bueltaka eduki zutenean, eta nirekin ere bai, beste era batera.

Diez: Solaskidetzaren baldintzatuak sortzeko tresna zen deportazioa. Gobernuak erabakita, solaskidetzaren eskemajakin bat finkatzen da eta, horrela, negoziazio prozesua gutxienean bermeei gauzatzeko beharko liratekeen mugimendu eta komunikazio askatasunak ezinezko bihurtzen dira. **Txomin Iturberen heriotzak zenbateraino eragin zuen Espainiako Gobernuarekiko harremanetan?**

Etxebeste: Istripu baten ondorioz pertsona kualifikatu bat galduta izana tamalgarria izan zen; baina, martxan zegoen prozesuari zegokionez, ildo berean eta ermittu berean jarraitu zuen. Izan ere, Txomin hil aurretik aurreikusita zegoen beste pertsona batzuk Aljerreara joatea...

Zu zeu, hain zuten.

Etxebeste: Hala da. Eta bide berean jarraitu genuen.

Nolakoak izan ziren lehen bilerak?

Etxebeste: Txomin Aljerrera heldu zenetik egin zituen Espainiako Gobernuak, polizien bidez, ETarekin harremanetan jartzeko saioak: Manuel Ballesteros, Pedro Martinez, Jorge Argote, Julian Elgorriaga... Bilerak egin zituzten, Txominekin aurrea eta nirekin gero. Bergizarteratze eta damutze bideak bilatzeko baliatu zuten harreman hura.

Zer jarrera izan zuen ETak poliziekien egindako bilera haietan?

Aljerko prozesuaren kronologia

1982 PSOEren garaipena: PSOEak hauteskundeak irabazi zituen urrian, Felipe Gonzalez buru. 1983 ZEN plana: Urtarrilean jarri zen indarrean polizi neurriak gogortzeko egitasmoa. GALEN hasiera: Lasa eta Zabala bahitu, torturatu eta hil zituzten urrian. GALEk bere gain hartutako lehen ekintza	abenduan izan zen: Segundo Mareyren bahiketa. 1984 Bergizarteratze politika: Apirilean hasi ziren bultzatzen bergizarteratze politika. 1986ko irailean arte iraun zuen. Harreman saioak: Uztailaren Martin Patiño jesuita bildu zen Iturberekin, Parisen, Felipe Gonzalezek eskatuta. ETarekin biltzeko saioa egin zuen irailean	Frantziako Gobernuaren enbaxadore Pierre Guidonik (bi gobernuen izenean), HBko Santi Brouard eta Jokin Gorostidiren bitartez, baina emaitzarik gabe. 1984 hartako azaroaren 20an hil zuten Brouard bi mertzenariok. Etxebeste atxilotu: Uztailaren 30ean atxilotu zuten Eugenio Etxebeste. Santo Domingora deportatu zuen abuztuaren 9an. Barriouveau negoziatzeko prest: ETak «nahi duen lekuan eta nahi	duen garaian» negoziatzeko prest zegoela adierazi zuen Jose Barriouveau abuztuaren 23an. 1985 Ahalegin gehiago: Rodriguez Galindo ETarekin harremanetan jartzen saiatu zen urtarrilean, Kepa Ordokiren bidez. Juan Felix Eriz enpresaburuak, ETaren arabera, CESIDen bitartekari gisa aurkeztu zitzaion erakunde armatuari. Ahalegin huts eginak.	1986 GALEk bere gain hartutako azken atentatua: Otsailaren 17an, Cristobal Matxikote eta Catherine Brion hil zituen Bidarrain. Iturbe atxilotu: Apirilaren 27an atxilotu zuten Txomin Iturbe, Lapurdin. Uztailaren 13an Gabonera deportatu zuten. Etxebeste Ekuadorrera: Santo Domingotik Ekuadorrera, maiatzaren lehenean.
--	---	--	---	--

**RAFA DIEZ**

«Konpromisoak bi aldekoak zirenez, ETAk garrantzi erlatiboa eman zion aldagaien ordenari»

**EUGENIO ETXEBESTE**

«Elgorriagak lehenengo bileran esan zidan kontua panpina janzea zela, itxura egitea»

**IÑIGO IRUIN**

«Negoziazioa enuntziatu bat baino ez zen orduan ENAMen; diseinurik ez zegoen»



EUGENIO ETXEBESTE, Aljerko Mahaian ETaren bozeramaile izan zena, Iñigo Iruin eta Rafa Diez orduko aholkularien erdian, Donostiako kaiaaren ondoan. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Etxebeste: Erakundeak tinko eutsi zion. Fronteak irekita zeuden bitartean, halakoak jasan genitzakeen.

Zertaz hitz egiten zenuten bileretan?

Etxebeste: Ballesterosek eta Martinezek nirekin egin zuten lehen oso desatsegina izan zen. Agurtu orduko zera esan zidaten: «1981ean eskapada ederra egin zenuen, tiroa egiteko moduan parean eduki zintugunean». Nire aurkako atentatua aitortuz bezala. Ni gaizki nenbela bazekitela, ea noiz izango nuen itzultzeko aukera... Tinko eustea zen kontua, polizia batzuen aurrean zinela jakitea. Eta argi hitz egitea: gai hau konpondu nahi genuela, ez hain zuzen beraiekin, eta politikariak etortzea nahi genuela. Bilerak gutxi iraun zuten. Bigarren bileran adierazpen grabatua egin genuen, aljeriarren adostasunarekin. Adierazpen hartan bukatutzat eman genituen harreman politzialak, eta elkarriketa politikoak hasteko eskatu genion Espainiako Gobernuari. Orduan Julian Elgorriaga bidali ziguten, EAEko gobernu ordezkaria. Politikoa goa. **Politikaz hitz egiten hasi zineten Elgorriagarekin?**

Etxebeste: Elgorriagak, lehenengo bilera egin nuenean, esan zidan kontua panpina janzea zela, itxura egitea. Bilerak egiten eta zerbait egiten ari ginen plantak egingo genituela, baina azken batean armak non eta noiz utziko genituen zela kontua. Eta orduan ikusiko zutela presoekin zer egin zitekeen.

Planteamendu horiekin nola egin zenuten aurrera?

Etxebeste: Halako batean, harreman horien fasea agortu egin zen. Haietako gauza zehatzak eskatzen hasi ziren, bukatu behar zegoela, bestela denok Aljeriatik kanpora gindoazela... Eta guk, berriz, planto egin genuen: damutzearen bidetik ez ginelako inola ere sartuko eta une horretatik aurrera harreman politzialei uko egingo genielako. Elgorriagaren laugarren bileran izan

zen hori. Elgorriagarekin berriro biltzeari uko egin genion. Une horretan bi aldeek berriro kokatu behar izan genuen. Eta Espainiako Estatuak jarraitu beharra zegoela erabaki zuten.

Nola?

Etxebeste: Geldialdi batek egin zen, baina jardun diplomatikoarekin beti, bitartekaritzaren bidez. Espainiako Gobernuak mezuak bidaltzen aritu zen, eta erakundeak kontraproposamenak egiten. Noiz ikusi zen desblokeatzeko? Revillaren arrestoan.

Baina Revillaren bahiketak, hain zuzen, harremanen etena ekarri zuen.

Etxebeste: Bai. Arrestoak harreman guztiak haustea esan nahi zuen; baina, aldi berean, adierazten zuen Revillarena konponetzeak berriro harremanetan jartzea ekar zezakeela. Hain zuzen, Revillarena konpondu zenean, eskaintzen eta kontraeskaizten dinamikak zabaldu zen, Espainiako Gobernuak eskaintza jakina egin zuen arte: «Erakundeak lehenengo pausoa ematen badu, pauso horri erantzun egingo diogu, era publikoan ez bada ere».

Su-etena zen pauso hori. Aurrera su-etena, gero hitz egiten hasteko?

Etxebeste: Baina lehen pausoaren jarraipena, haien erantzuna, hitzartua zegoen. Ondorioztatu genuen 15 eguneko su-eten minimoa aurpegia garbitzeko baliagarri izango zitzaizela beraiei harreman politikoa hasi ahal izateko. Ondo lotua zegoen, bi aldeek lotua, bitartekariaren bidez.

Diez: ETAk garrantzi erlatiboa eman zion aldagaien ordenari, konpromisoak bi aldekoak zirelako, eta bermeak ere bazeudelako, Aljeriako Gobernuarekin. Gai hori gaur egun ere eztabaidan dago: zer etorri behar du lehenago, honek edo bestek? Gakoa konpromisoak eta bermeak bi aldekoak izatean datza.

MAHAIAREN BILERAK

Hitza bete zuen, beraz, Espainiako

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

Harreman zuzenak EAJrekin: 1986ko apirilatik ekainera sei bilera egin zituzten ETAk eta EAJk. Genaro Garcia Andoain Ertzaintzako burua izan zen EAJren ordezkaria. Garai berean, apirilatik maiatzera, EAJren eta HBren arteko elkarriketak ere egin zituzten.

Gonzalez, negoziazioaren aurka: Abuztuaren 12an negoziazioaren aurka mintzatu zen Felipe Gonzalez: «ETArekin

negotiaziorik ez da egon, ez dago eta ez da egongo».

Iturberen joan-etorriak: Gabonetik Sao Tomera, handik Angolara, berriro Gabonera... eta azkenean Aljeriara heldu zen, irailaren 5ean.

Bilera Argoterekin: Jorge Argote abokatua, Espainiako Gobernuaren ordezkari, Iturberekin bildu zen azaroaren 12an. Bergizarteratzea eskaini zion, armak uztearen truke.

1987

Julian Sancristobalekin: Urtarrilaren 11 eta 12an bi bilera egin zituen Iturbek Julian Sancristobalekin.

Iturberen heriotza: Otsailaren 27an istripuz hil zen Txomin Iturbe, Aljerian.

Etxebeste Aljerrera: Etxebeste Ecuadorretik Aljeriara eraman zuten uztailaren 9an.

GALEN azken atentatua: Juan Carlos Garcia Goena hil zuten

uztailaren 24an Hendaian.

GAlek ez zuen bere gain hartu.

Mitterrand-Gonzalez bilera: François Mitterrand eta Felipe Gonzalez presidenteen arteko bilera, abuztuaren 25ean, Latchen. Handik hiru egunera, Gobernuak ETArekin harremanetan zela aitortu zuen Javier Solana gobernu bozeramaileak.

Lehen bilerak Etxebesterekin: Manuel Ballesteros

Etxebesterekin bildu zen, abuztuaren 11n. Irailaren 18an beste bilera bat egin zuten.

Elgorriagarekin: 1987ko urriaren 15ean eta 16an, eta azaroaren 21ean Julen Elgorriagarekin bildu zen Etxebeste. Espainiako Gobernuaren EAEko ordezkaria zen Elgorriaga.

Madrilgo Ituna: ETaren aurkako Estatu Ituna sinatu zuten

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

HARIAN » Aljerko prozesuari buruzko elkarriketa

(Aurreko orrialdetik dator)

Gobernuak, urtarrilaren 14an goi mailako ordezkariak —Rafael Vera eta Juan Manuel Egiagarai— zuekin bilera egitera bidalita.

Etxebeste: Bilera hartan, Mahaia- ren bileren egutegiaren eta lehen bilerarako gai zerrendaren proposamena bitartekariaren bidez faxez bidaltzekotan gelditu ginen.

Eta bi aldeko su-etena hitzartu.

Etxebeste: Hori lehendik hitzartuta zegoen. Hamabost egunen buruan, bi aldeko jokalekuan sartu ginen.

Mahaia- ren lehen bilera formala urtarrilaren 25ean egin zenuten. Zertaz hitz egin zenuten?

Etxebeste: Frankismoaren bukatik ordura arteko analisia egi- tea proposatu genuen: erreforma, Espainiako Konstituzioa, Gernikako Estatutua...

Nora heltzeko?

Etxebeste: Elkar aitortzea eta elkarrekiko konfiantza sortzea Mahaiko solaskidetzetatik harago eraman nahi genuen, eta konfrontazio politiko-militarraren jatorrian arazo politiko bat zegoela ondorioztatzea bi aldeek.

Autodeterminazio eskubideari eta lurraldetasunari zer irtenbide eman eztabaidatzea heldu zineten?

Etxebeste: Ez. Diseinua beste bat zen: politikaz hitz egin, sakondu, poliki-poliki ETAK borroka armatua uztea eragozten zuten kontratasenak ulertzea heltzeko.

Beste aldearen estrategia zien zen?

Etxebeste: Ez zuten gai ordenarik proposatu, eta guk proposatutakoekin aritu ginen. Gobernuaren izenean Verak hitz egiten zuen, eta analisi politikoei buruzko eztabaidatan Egiagarai. Beraiek frankismoaren garaia gaudituta zegoela eta Euskadin dena primeran zihoala azaldu nahi izan zuten une oro.

Ondorio garbirik atera zenuten eztabaida politiko haietatik?

Etxebeste: Argitu beharra dago ez zela negoziazio mahaia, eraikitzen ari zen prozesua baizik. Eta inork ez zekien zer izango zen horren emaitza. Bileretako batean beraiek gai konkretuak ateratzen hasi ziren: gure kide bat, Angel Aldana, Santo Domingotik Panamara eraman zutela eta hori borondate oneko keinutzat saldu nahi ziguten. Eta segidan preso eta deportatu guztien ze-

RAFA DIEZ

«Irtenbide politiko negoziatuaren esaldia onartzea esparru politikoa auzitan jartzea zen»



EUGENIO ETXEBESTE

«Ez zen negoziazio mahaia, eraikitzen ari zen prozesua baizik, eta inork ez zekien zer izango zen emaitza»



ALJERIA, ELKARRIZKETA LEKUA

Bitartekariaren menpekotasunak

Aljeriako bitartekaritzak oparitutako *Mouflon d'or* ardo botiletako bat gorderik izan du Rafael Diezek orain gutxi arte, due- la ez asko Eugenio Etxebestekin batera edan duen arte. Gozotzen hasia zegoen. Hiru botila txikiko kutxa banatan oparitu zizkien, zuria, gorria eta beltza. Oso ardo ona, Etxebesteren hitzetan.

Tratu atsegina eman zieten Aljeriako Gobernu bitartekari- ke, oro har, ETAKo solaskideei eta hauen aholkulariei, elkarriketen ondoren kanporatu zituzten arte. Elkarriketen atarian, Enbaxadoreen Aretoan harrera ofiziala egin zioten ETAKo ordezkariari, ohorez-

ko te eta guzti. «Ordezkaritza politiko bati zegokion tratua eman ziguten. Harremanak goi mailakoak ziren», dio Etxebestek. «Elkarriketetako aldeetako bat ginen neurrian», azaltzen du Diezek, «begirune politikoz hartu gintuzten». Jokabide horren jatorrian, Iruinen iritzi- z, Espainiako Gobernuaren aitortza politikoa zegoen: «Espainiako Gobernuak ETA solaskide politikotzat onartu zuen neurrian jokatu zuen Aljeriak jokatu zuen bezala, aitortpen horrekin koherentzia».

Tratu zuzenak elkarriketek iraun zutena iraun zuen. Mahaia krisian sartu zenean, nabarmen gelditu zen Aljeria ez

zela neutrala. Iragan iraultzaile- a, ETAKo eta FLAKo arteko harremanak eta euskal errefuxiatuak jasotzeko tradizioa gorabehera, Espainiako eta Frantziako gobernuen menpekotasun harremana zuela. «Aljeria oso baldintzatua zegoen, arlo ekonomikoan batik bat», dio Etxebestek. Iruinek dioenez, gainera, «barne egonkortasunik ez zen orduan Aljerian, eta baldintza horietan errazagoa zen Estatu espainiarrak instrumentalizatea».

«Kontua da», azaltzen du Diezek, «1989ko elkarriketak hasi zirenerako Aljeriako Iraultzak higadura eta desegonkortasun sintomak zituela, eta guk

ordaindu genuela, elkarriketak bide txarra hartu zutenean, Frantziako eta Espainiako estatuek xantaiaren bidez baldintzatu zutenean». Elkarriketak urte batzuk lehenago izan balira, bitartekaritzak beste jarrera bat izango zuela uste du Diezek: «Une txarrean heldu ginen. 1980ko Aljeriarekin egin izan bagenu topo, ziurrenik beste era batera jokatu zuen anfitrioiak bukaera».

Aljeriako eskarmentua kontuan hartuta, etorkizunari begira, elkarriketarako lekua aukeratzean, barne politikari dagokionez herrialde egonkorra izatea beharrezkoa litzatekeela uste dute hiruek.

renda atera zuen Verak, kasuak banan banan aztertze- ko asmoz. **Zuek ez zenuten preso- ez orduan hitz egin nahi.**

Etxebeste: Berriro gauzak argi jarri genizkien: ez zela ez auzi tekniko-praktikoak aztertze- koa, ezta negoziazio politikorako unea ere, baizik eta elkarriketa politikoen bidez kualitatez maila handiagoko fase batera pasatzea ahalbidetzekoa. Guk une batean KAS alternatibaren irakurketa egin genuen, puntu- tu puntu. Eta orduan esan zuen Verak esaldi famatu hura, Estatuarentzat zailagoa izango zela presoak askatzea, autodeterminazioa ahalbidetzekoa. Guk une batean KAS alternatibaren irakurketa egin genuen, puntu- tu puntu. Eta orduan esan zuen Verak esaldi famatu hura, Estatuarentzat zailagoa izango zela presoak askatzea, autodeterminazioa ahalbidetzekoa. Guk une batean KAS alternatibaren irakurketa egin genuen, puntu- tu puntu. Eta orduan esan zuen Verak esaldi famatu hura, Estatuarentzat zailagoa izango zela presoak askatzea, autodeterminazioa ahalbidetzekoa.

Zer gertatu zen 30 ordu iraun omen zuen azken bilera hartan?

Etxebeste: ETA prest zegoen beste hiru hilabeteko su-etena emateko, arlo tekniko- ko baldintza batzuekin, oraindik ez baitzen kualitatiboki mahai haren fasea gauditu: gure solaskidetzara zuzendaritzako kide batzuk gehitzea [Urrutikoetxea, Garalde eta Lasa Mitxelena], haien solaskidetzara Estatu- ko Kontseiluko kide aholkulari bat ekartzea, eta alderdi politikoen mahaia osatzeko pausoak ematen has- tea. Eta gero, adierazpen politi- koaren kontua zegoen.

Adierazpenari buruz izan zen azken eguneko eztabaida nagusia, ezta?

Etxebeste: Bai. Guk testu bat proposatu genuen, haiek beste bat, guk haien hitzaurrea onartu ge- nuen, printzipio demokratikoak eta abar onartuz, baina haiek prozesuaren helburua irtenbide politiko negoziatua zela aitortzen bazuten. Ez zuten aitortzen

eta, akordioa lortu ezinik, goi- zaldean halako batean mahaitik altxa ziren. Han utzi gintuzten.

Bilera ez zen ordea hori bukatu.

Etxebeste: Goizean jenerala etorri zen, [Mohamed Betchine], Segurtasunerako eta Prebentziorako Zuzendaritzarako mi- nistroa, eta berriro hasi ginen. Jeneralak hitza hartu zuenean, mahai hartako elkarriketa poli- tikoak negoziazio baterako bi- dea zirela ulertzen zuela esan zuen, eta anfitrioiaren lana plan- teamendu horren logikan zegoe- la. Azalpen hori eman zuen, or- dezkaritza espainiarrak onartu egin zuen eta orduan hitzartu genuen testuan irtenbide politi- ko negoziatuaren kontzeptuak agertu behar zuela. Akordioa lortu zela ulertu genuen, elkarri bosteko eman genion, eta ba- koitza bere etxera.

ETAK zortzi puntuko akordiora heldu

zinetela jakinarazi zuen martxoaren 27ko agirian. Zein neurritan hitzartu zenituzten puntu guztiak?

Etxebeste: Guk gaiak planteatu eta beste aldeak isiltasunarekin erantzuten zuten neurrian. Ez zu- ten berariaz baietz esaten, baina bileratan landutako gaiak ziren: mahai osagarria, solaskidetzak indartzea... Irtenbide negoa- tiaren puntua salbu, hori testu baten gainean hitzartu baie- nuen, gainerakoa horrela izan zen. Gero Corcuera irakurri zuena («irtenbide hitzartua eta behin-betiko»), ez zen mahaian hitzartutakoa («irtenbide politi- ko negoziatua»).

Espainiako Gobernuaren ordezkari- tzak irtenbide negoziatua onartu izanaren berme bakarra Aljeriako bitartekaritzak zen?

Etxebeste: Ez zen aktarik jaso- tzen, baina aljeriarrek bilerak grabatzen zituzten. Berme baka-

Aljerko prozesuaren kronologia

(Aurreko orrialdetik dator)

Madril, Ajuria Eneko Itunaren aurrekaria, azaroaren 5ean.

1988

Ajuria Eneko Ituna: Ajuria Eneko Ituna sinatu zuten HB ez beste alderdi guztiek urtarrilaren 12an. **Su-etan eskaintza:** Urtarrilaren 28a su-etan baldintzatua eskaini zuen ETAK, negoziazio mahaia irekitzearen truke.

Azken bilera Elgorriagarekin: Otsailaren 20an Elgorriagarekin azken bilera egin zuen Etxebestek.

Revillaren bahiketa: ETAK Emiliano Revilla bahitu zuen otsailaren 15ean.

Harremanak eten: Revilla bahituta zegoen bitartean ETAKekin harremanik ez zela izango adierazi zuen Alfonso Guerra lehendakariordeak. **Corcuera ministro:** Uztailen

Jose Luis Corcuera Barrionuevo ordezkatu zuen. Rafael Verak Segurtasunerako Estatu idazkari jarraitu zuen.

Corcuera, alderdiekin: Irailean alderdiekin bilerak egin zituen Barne ministroak, ETAKekin elkarriketa prozesua hasteko babesa lortzeko.

Revilla aske: Urriaren 30ean askatu zuen ETAK Revilla.

Bigarren su-etan eskaintza: Negociazio mahaia osatzu gero

su-etena emango zuela adierazi zuen ETAK, azaroaren 2an.

Bilera Parisen: Corcuera eta Verak bilera egin zuten Pierre Joxe Frantziako Barne ministroarekin, azaroaren 22an. Beste bilera bat egin zuten Madril, hilaren 28an.

Elkarriketa 'Diario 16'-n: P.J. Ramirez *Diario 16* egunkari- ko zuzendariak elkarriketa egin zion ETAKi. Abenduaren 21ean argitaratu zuten.

Gobernuaren eskaera:

Bitartekari aljeriarren bidez, modu diskretuan, ETAKi bi aste- ko su-etan publiko eskatu zion Espainiako Gobernuak, harremanak berriro hasteko. **Corcuera Aljerrera:** Espainiako Barne ministroa Aljerrera joan zen, eta itzulitakoan alderdiekin bilerak egin zituen.

1989

Alde bateko su-etena: Bi aste- ko

IÑIGO IRUIN

«Aljerren negoziazio teknikoaren maila gaindi ez zedin egin zuten martxoaren 18ko manifestazioa»

rra, bai, bitartekaritza zen. Haien agiritan aitortu zuten, arrazoi eman ziguten.

HAUSTURA

Zer gertatu zen zuen ustez Espainia-ko Gobernuak atzera egiteko?

Iruin: Mahaia ez zen Aljerren hautsi, Madrilen baizik. Mahaia akordioarekin altxatu zen. Corcuera alderdiekin erronda egin zuen Madril, alderdien iritzia jaso zuen, batez ere EAJrena, eta hortik etorri zen etorri zena. ETak akordioaren agiria ateratu zuenean, Ajuria Enetik adierazi zuten ez zeudela prest inork suplantatuak izateko, eta ez zutela onartuko haiek ordezkariak ez zuten mahai bateko erabakirik.

Diez: Irtenbide negoziatua PSO-Ek arbuaitu zuen, edo eragile gehiagok parte hartu zuten arbuio horretan? Susma daiteke eragile politiko batzuk beldur zirela, irtenbide politiko negoziatua ezker abertzalearen lorpena bihurtzeko, eta irtenbide negoziatua onartzeak auzitan jartzeko zuelako indarrean zegoen esparru juridikoa.

Ajuria Eneko Ituneko alderdiek deitutako manifestazioa beldur horren seinale izan zen zuen iritzi?

Iruin: Eremita osoan jarraia al daketa eragin zuen Aljerko prozesuak. Autodeterminazio eskubidea eztabaidaren erdian kokatu zen, eta EAJk berak urte hartako Aberri Egunean autodeterminazio eskubidearen aldeko agiria onartu zuen lehen aldiz. Urte hartako urtarilaren buketan Ertzaintza behin-betiko hedatzea erabaki zuen Estatuak; bakearen mahai batera deitzeko eskatzen ari zen EA, autogobernu batzorde bat eratzea proposatzen ari zen EE eta abar. Marko politikoa indartzeko ahaleginak ziren. Eta, aldi berean, Aljerren negoziazio teknikoaren maila gaindi ez zezaten helburuare-



kin, martxoaren 18ko manifestazioa egin zuten; Ajuria Eneko Itunaren aurkezpen modukoa izan zen.

Etxebeste: Elkarriketen flotazio marrari torpedoa jaurtitzea zen, are gehiago solaskideetako bategi, Egiagarai, manifestazioan parte hartu zuenean.

Diez: Garrantzitsua izan zen. ETaren eta borroka armatuaren errendizioaren aldeko mugimendua izan zen. Azken batean, EAJk despolitizatu zuen prozesua, PSOeri babes handia eman baitzion eskaera bakarrarekin: borroka armatua bukatzea. PSOEk esan zuen: «Irtenbide politiko negoziatua? EAJ eta Ajuria Eneko Ituna baldin badauzkat babesa ematen, ez dut zertan norabide horretan mugitu».

EAJk Aljerrera ordezkari bat bidaltzea proposatu zuela idatzi du Xabier Arzalluzek bere liburuan. Gorka Agirre aipatzen du.

Etxebeste: Eskaera egin zuen, bai, baina ezetz erantzun zitzaion. Mahai hark beste mahai batzuei bidea egin behar zien, eta haiek bai izango zuten, zilegitasun osoz, ordezkariak. Baina une hartan ez zegoen baldintzarik, erakitzen ari zelako. Han alderdiak sartu izan bagenitu, segundu bakarrean lehertuko zen.

Iruin: EAJk present egotea bilatu zuen, nazionalismoaren barruko hegemonia arriskuan sumatzen zuelako, bestela ere posizio ahulean baitzegoen garai hartan, zatiketaren ondoren. Hortik Ardanazaren adierazpenak, hedabideek ETari eta ezker abertzaleari ematen ari zitzairen protagonismoagatik kezka, edota Arzalluzen hitzak, Aljerko Mahaian autodeterminazioari buruz ezin zela hitz egin esaten. EAJk negoziazio tekniko hutsaren alde egin zuen, eta PSOeri beharrezko babesa eman, buketan argi geratu zenez.

ETAK ultimatumarekin erantzun zion



EGIAGARAI, Espainiako Gobernuaren EAEko ordezkari kargua hartzen, Rodriguez Colorado eta Corcuera lekuko zirela, Aljerko prozesua hautsi eta hilabete batzuetara, 1989ko abenduan. SINADURA

AHOULKULARIAK

Aldameneko gelatik

Lyondik, Moulhousetik edo Parisetik barrena ailegatu ohi ziren, hegazkinez, Aljerrera. Eta beti funtzionario bera izaten zuten zain, Salah. Hortik aurrerakoak —garraioa, ostalua, segurtasuna— Aljeriako Gobernuaren esku zeuden. Iñigo Iruin, Rafa Diez eta Iñaki Aldekoa bilera gehienetan izan ziren, eta Txema Monterok, Luis Nuñezek eta Tasio Erkiziak osatzen zuten, tarteka, aholkulari taldea.

Zehaztu beharra dagoela uste du Etxebeste: «Ez ziren ETaren aholkulariak. ETaren solaskidetzaren aholkulari baizik. Gu ez ginen Erakundearen zuzendaritza, solaskide-

tza baizik. Erabakiak Erakundeak hartzen zituen». Hain zuzen ere, Etxebesteren hitzetan, ETaren solaskidetzaren zegoen baldintzatan egoteak egin zuten garrantzitsu aholkularien laguntza: «ETaren historian lehen aldiz, Erakundearen solaskidetzaren batek elkarriketa prozesu bati ekin zion, Batzorde Eragileko kideekin harreman zuzenik izan gabe. Ikuspuntu teknikoak garrantzitsua da. Etorkizunari begira bideratu beharko da: nola egin prozesua solaskidetzaren Erakundearen zuzendaritza-tik isolatua egon ez dadin».

«Gure presentziak bazuen beste arrazoi bat», gaineratu

du Iruinek: «1980ko hamarkada hasieratik negoziatua ardatza zen ENAMen jarreratan, baina enuntziatu bat besterik ez zen. Diseinurik ez zegoen, ereduari buruzko gogoeta egin gabe zegoen. Eredurik gabe sartu ginen Aljerreko Mahaian, eta eredu ibiliz egin behar izan genuen. Beharrezkoa zen diseinu horretan lagundu zezaketenen presentzia, batez ere negoziatua fase irekitzen baldin bazen».

Gainera, Rafa Diezen hitzetan, «aholkularien presentzia eta aitortza» garrantzitsuak ziren, «prozesuaren izaera politikoa aitortzen zutelako horrek».

Espainiako Gobernuari, honek akordioa onartu ez zuenean, eta gero fronte guztiak ireki zituen. Malgutasun gehiagorekin prozesuarekin jarraitzea ez ote zen posible?

Etxebeste: Ultimatuma emateko eta haustura gertatzeko moduak gogoetarako gaia izan dira Erakundearen: arlo diplomatikoan egokia izan ote zen, herrialde anfitrioiak zer lekutan uzten du-

zun... Dena den, azken bileraren ondoren beste bilera bat egiten saiatu ginen. Jauregi batera deitu gintuzten bi aldeak, baina Espainiako Gobernuaren ordezkariak ez zen agertu. Borondatea falta zen. Pentsatu zuten su-etena haustea etekin gehiago emango ziela, luzatzeak baino.

Iruin: Prozesuarekin jarraitzeko aukera asko baldintzatu zuen

ezker abertzaleak, garai hartan, EAJrekin edo EArekin gaur egun dituen harremanak ez izateak. Inkomunikazio horrek susmo eta mesfidantza etengabekoa eragiten zuen. Ezker abertzalearen eta nazionalismo historikoa- ren arteko inkomunikazioak, eta honek PSOErkin zuen menpekotasunak, asko zaildu zuen prozesuak aurrera egiteko aukera.

su-etena eman zuen ETAK urtarilaren 8an.

Urrutikoetxearen atxiloketa:

Urtarrilaren 11n Josu Urrutikoetxea eta Elena Beloki atxilotu zituen Frantziako Poliziak.

Gobernuko ordezkarietarekin bilera:

Urtarrilaren 14an elkarriketa politikoak hasi ziren. Rafael Vera Estatu idazkaria eta Juan Manuel Egiagarai Murtziako gobernu

ordezkaria (PSE-PSOeko burukidea izana, eta EAEko gobernu ordezkaria izango zena, 1989ko azarotik aurrera) osatu zuten Gobernuaren solaskidetzaren, eta Etxebeste, Belen Gonzalezek eta Iñaki Arakamak ETAKoa. Corcuera ministroa Aljerren izan zen, baina ez zuen bileran zuzenean parte hartu. **Bi aldeko su-etena:** Bi aldeek bi hilabeteko su-etena hitzartu zutela jakinarazi zuen ETAK

urtarrilaren 23ko agirian, eta «elkarriketa politikoak» hasiera erabaki zutela. Gobernuak erantzun ofizialik ez zuen eman, baina agiria ez zuen gezurtatu. **Mahaia lehen bilera:** Urtarrilak 25ean egin zuten lehen bilera bi ordezkarietaz, bi ordu eskasekoa. Solaskideak aurreko bilerako bostak izan ziren. Aholkulariak aparteko gela banatan zeuden. ETAK sei aholkulari izan zituen: Iruin,

Aldekoa eta Diez hasieratik, eta Txema Montero, Luis Nuñez eta Tasio Erkizia ere bai gero. Veraren eta Egiagarainen laguntzaileak Manuel Ballesteros eta Pedro Martinez poliziak izan ziren. **Ertzaintzaren hedapena:** Akordioa sinatu zuten bi gobernuak, urtarilaren 27an. **Bigarren eta hirugarren bilera:** Otsailaren 14an eta 27an egin zituzten bigarren eta hirugarren

bilkurak. Trantsiziotik aurrerako garaian errepaso politikoa egin zuten, ETAK ordezkariak hala nahita. Gobernuak presoan auzian zentralatu nahi zuten, baina ETAK ordezkariak, ez. **Etxebesteri elkarriketa:** Etxebesteren elkarriketa luzea argitaratu zuen Egin-ek martxoaren 8an. Prozesuak hiru epe izango zituela azaldu zuen:

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

HARIAN © Aljerko prozesuari buruzko elkarriketa

«Osagai politikoak konfrontazio armatuaren gainetik daude orain»

Gaur egungo baldintza politikoak egokiagoak direla uste dute Etxebestek, Iruinek eta Diezek

Aljerko negoziazio prozesuari ekiteko ETaren gaitasun militarra erabakigarria izan zela uste dute Etxebestek, Diezek eta Iruinek. Gaur egun, euren iritziz, lurralde eredu krisian dagoela eta alderdi politiko gehienek esparru politiko-juridikoa auzitan jartzen dutela da aldaketarako funtsezko eragilea, eta ez «konfrontazio armatua».

Negoiazioa ETaren eta Espainiako Gobernuaren artekoa zen neurrian, ETA ez al zen ari euskal herritarren ordezkaritza bere gain hartzen?

Iruin: Aljerko eredu hiru faseetan zegoen eraikia: harremanak, elkarriketa politikoak eta negoziazioa. Bigarren fasearen barruan hautsi zen prozesua, eztabaidagaietan nahiz solaskidetzatan maila handiagoa izango zuen mahaira pasa nahi zenean. Elkarriketa politikoen fase honetan PSOEren eta HBren arteko elkarriketa mahaia aurreikusen zen. Baina alderdi politiko guztien parte-hartzea ere aurreikusia zegoen, negoziazioaren faserara ailegatuz gero. Beraz, Aneotan proposatutako bi karrilen eskema diseinatua zegoen Aljerren, hirugarren faserako.

Diez: ETak ez zuen prozesu negoziatzailea modu patrimonialistan egin nahi. ETak baldintzak sortu nahi zituen, egoera desblokeatu, prozesu negoziatzailea posible izan zedin. Ez da zuzena ETak euskal gizartearen ordezkaritza hartu zuela esatea, EAJk esan zuen bezala. 30 orduko bilera sonatuan Estatuak irtenbide politiko negoziatua onartu izan balu, automatikoki bide bikotizaren prozesua abiatuko zen. Askotan hitz egin da Aljerren egin zena orain ezker abertzalea egiten ari denaren antitesia izan balitz bezala. Ez dago antitesirik. Aljerrek ikasgaiak ditu, gogoeta gaiak, baina hau argi dago: ETak ez du inoiz Euskal Herri osoaren ordezkaritza bere gain hartu nahi izan, gatazkari



IÑIGO IRUIN, Eugenio Etxebeste eta Rafa Díez, elkarriketan. ANDONI CANELLADA / ARGAKZI PRESS

IÑIGO IRUIN

«Alderdi politiko guztien parte-hartzea ere aurreikusia zegoen, negoziazio faserara helduz gero»

konponbidea emateko orduan. Egoera politikoaren ezaugarri nagusia enfrontamendu politiko-militarra izatearen ondorioa zen ETaren protagonismoa.

Zer ondorio izan zituen porrotak ezker abertzalean?

Etxebeste: Lehenik eta behin porrota izan zela ukatu behar da. Aljer ez zen porrota izan, esperientzia bat baizik. Lizarra-Garazi ere ez zen porrota izan, beste esperientzia bat baizik. Haustura bakoitzak aberastu egiten du, gatazkaren benetako koordinadara heltzen lagundu.

Iruin: Aljerren bezala Lizarra-Garazin, haustura gertatu eta bere-

EUGENIO ETXEBESTE

«Aljerko prozesuak utzitako aktibo garrantzitsuetako bat ETaren aitortza politikoak da»

hala ezker abertzalea galtzaile ateratzea eman izan du. Ezker abertzaleak komunikabideen bataila galdu zuen, hausturaren ondoren. Aurrera begira, iritzia sortzeko orduan Estatuaren aldeko desoreka nabarmena dagoenez, ezker abertzaleak inplikatu egin behar du gizartearen aktibazioan, euskal gizarte bera izan dadin prozesuaren protagonista, hori izango baita antidoto nagusia balizko haustura batean erantzukizuna ezker abertzaleari egozten zaionerako. Bestalde, Aljerko haustura garesti ordaindu zuen ezker abertzaleak arlo errepresiboan, Lizarra-Garaziko

RAFA DIEZ

«ETak baldintzak sortu nahi zituen, egoera desblokeatu, prozesu negoziatzailea posible izan zedin»

haustura ere garesti ordaindu zuen bezala. Desberdin, hala ere: ETaren aurka Aljerren ondorenean, ezker abertzaleko egituren aurka Lizarra-Garazin ondoren. Baina Aljerren oso positiboa izan zen gatazka konpontzeko elkarriketa beharrezkoa dela nabarmentzea, eta Espainiako Gobernuak bere bozeramailearen bidez aitortzea hori, Rosa Conderen ahotik hain zuzen, neurri polizialak ez direla eraginkorrak esan baitzuen. Hori da Aljerko prozesuaren aktiboetako bat.

Diez: Esperientzia bakoitzean, prozesuetako irteera garestia

izan da ezker abertzalearentzat. Baina prozesuaren bilakaerari dagokionez, aurrerapausoa izan zen. Aljerren ondoren EAJk autodeterminaziorantz jo behar izan zuen, ziklo politiko hark esututa. Lizarra-Garazin ere, ezker abertzaleak berriro garesti ordaindu zuen arren, EAJ jaitsi ezin duen maila politiko batean jarri zen, eta hortik *Ibarretxe plana*. Bereizi egin behar da: Estatuak ezker abertzalea neutralizatzea jo dute, baina prozesu politikoaren bilakaerak beste neurri bat hartzen du.

Etxebeste: Aljerko prozesuak utzitako beste aktibo garrantzitsua ETaren aitortza politikoak da. Estatuak solaskide politiko gisa onartu zuen ETA, hirugarren herrialde baten aurrean.

Diez: Ildo berean da mugari garrantzitsua Espainiako Kongresuaren ebazpena. Baldintzak gorabehera, gatazka konpondu nahi duen elkarriketa prozesuan ETari eragile izatea aitortu dio ebazpen horrek. Baldintza jakin batzuen barruan, ETarekin elkarriketatzea derrigorrezkoa dela aitortzen da. Eta hori, lehenengo aldiz, Aljerren egin zen.

Aljerko esperientzia kontuan hartuta, zer gogoeta egiten duzue hemen-dik aurrerakoaz?

Etxebeste: Aljerrek erakutsi zuen elkarriketa mahai bat osatzeko blindatze teknikoak beharrezko direla, anfitroiairen blindatzea ere behar dela, solaskidetzarena... Orduko defizitak konpondu behar dira. Politika arloan, beste jokaleku bat lortzeko prozesuaren beharri buruzko adostasuna dago orain, bai distentsioaren beharri buruz eta bai kontratuen politikoak gainditu beharri buruz. Guztiok zintotasunez jokatu behar dugu, hori erraztuko duten tresnak jartzen.

Iruin: Historiak eta bereziki Aljerko eta Lizarra-Garaziko prozesuek erakutsi dute prozesu politikoaren beraren bilakaerak distentsio erabakiak hartzera eramanez duela ETA. Hori kontuan hartzekoa da, hainbeste itxaropen piztu dituen kointutara honetan. Zalantzarik ez dago distentsio prozesu horien balioa eta efektu politikoak.

Konponbiderako baldintzak egokiak dira orain, beraz, zuen ustez.

Iruin: Aljerko prozesuan ez zego-

Aljerko prozesuaren kronologia

(Aurreko orrialdetik dator)

aurreko harremanak (gaingidutak ordurako), elkarriketa politikoak (une hartako fasea), eta negoziazio politikoak (gerora etortzekoak).

Laugarren bilera: Martxoaren 14an egin zuten laugarren bilera. Gobernuak mugari gabeko su-etena eskatu zion ETari. Prozesuaren azken helburua negoziazio politikoak zela

publikoki aitortzeko eta solaskidetzak zabaltzeko eskatu zion ETAK.

Ajuria Eneko Itunaren manifestazioa: Ajuria Eneko Ituneko alderdiek deituta manifestazioa egin zuten martxoaren 18an Bilbon, sekulako jendetsuenetakoa. *Bakea orain eta betirako* izan zen leloa.

Azken bilera: Martxoaren 22an goizeko hamarretan hasi eta

hurrengo eguneko arratsaldean bukatu zen azken bilera, Aberri Egunerako hiru egun falta zirela.

Helburua, elkarriketatzen jarraitzeko eta su-etena luzatzeko agiria hitzartzea. Negoziazioak hautsi egin ziren goizaldeko hiruetan, eta hurrengo goizean Mohamed Betchine jeneral aljeriarren bitartekaritzaekin eseri ziren berriro. ETaren arabera, akordioarekin bukatu zen bilera.

Aberri Eguna: Aberri Eguneko HBren ekitaldian, su-etenearen amaiera egunean, esperantza kutsuko hitzaldiak egin zituzten Iñaki Aldekoak eta Txema Monterok Iruñean, baina negoziazioei buruz ezer argitu gabe.

Akordioa, ETaren arabera: Akordioa lortu zutela jakinarazi zuen ETak martxoaren 27ko agirian, zortzi puntu hauetan: elkarriketen

bigarren fasea hastea «irtenbide negoziatua» lortzeko helburuz; lan egutegi bat zehaztea; bi solaskidetzak indartzea (Urrutikoetxea, Garalde eta Lasa Mitxelena gehitzea ETaren solaskidetzara); alderdien mahai osagarria eratzea (PSOE-HB, hasieran); Aljer elkarriketen lekua izaten jarraitzea; elkarriketen emaitzak publiko egitea; bi

Aljerrek utzitako ondorioak

- » ETAr solaskide politikoaren izaera aitortu zion Espainiako Estatuak
- » Elkarriketa onartu zuen Espainiako Gobernuak gatazka konpontzeko tresnatzat
- » Autodeterminazio eskubidea eztabaidaren erdira eraman zuen prozesuak

Gaur egungo faktoreak

- » Esparru politikoa aldatu beharri buruzko adostasuna
- » Faktore politiko lehentasuna, konfrontazio armatuaren gainetik
- » Elkarriketa prozesuaren ereduari buruzko adostasuna
- » Jarduera sozial eta politikoetan nazio ikuspegia indartu izana

en diseinurik. ETak prozesu horren moldeari buruzko gutxieneko ideia bat zuela aparte utzita, indar politikoak orokorrean ez ziren jarri hausnartzen gatazka politikoari irtenbidea emateko elkarriketa prozesuak nola-koa izan behar zuen.

Etxebeste: Horregatik jokatu zuen ETak jokatu zuen bezala. Errugbian bezala: jo ostikoa, eta jarraitu baloia. Blokeoa haustea zen kontua. Eta ito egin ginen. Beste aldean borondaterik ez zegoen. Baina Aljer pasabarra zegoen. Bestela ez ginateke orain gauden lekuan egongo. **Iruin:** Lizarra-Garazik ere antzeko gabeziak zituen, oraingoarekin alderatuta. Orain proposamen bat dago, diseinu bat, argazki bat, bi karrilekin. Ezaguna da, adostasuna du, parte-hartzea egon da. Gaur mundu guztiak

daki zein den bidea. Garai hartan bidea ibiliz egin zen. Hori, prozesuaren barruan zeudenek. Eta prozesutik kanpo zeudenek, mesfidantza erabatekoa. Alde nagusia hori da: orduan ez bezala, esparru juridiko-politikoaren aldaketaren beharri buruzko eta negoziazio ereduari buruzko adostasuna dago orain.

Diez: Aljerren esparru juridiko-politiko ez zegoen auzitan, gaur dagoen bezala. Garai hartan, marko politikoa auzitan jartzeak baino gehiago, ETaren jardun armatuak eraman gintuen Aljerrera. ETaren eta ezker abertzalearen pisu politikoaren arteko efektu biderkatzaileak funtzionatu zuen, baina Aljerko prozesua eragin zuen faktore erabakitzailea ETaren gaitasuna izan zen. Orain aldatu egin da: arlo militarra ez da hain erabakitzailea, baina marko politikoa auzitan jartzeak Estatu estutu egiten du, eta ezker abertzalearen aurkako estrategia baldintzatzen dio.

Faktore horien ondorioa da konponbiderako eskema, prozesuaren eredu, oso bestelakoa izan daitekeela gaur egun.

Iruin: Eredua ez da bakar bat. Unean uneko indar korrelazioaren arabera taxutzen da, eta garai bakoitzean alderdi politikoek daukaten borondatearen arabera. Nabarmena da 17 urteren buruan baldintza politikoak oso bestelakoak direla: esparru politikoa agortua dago, eta Euskal Herriko herritarren erabaki eskubidea gauzatzearen aldeko borondatea dute alderdi gehienek. Horregatik, Aljerko prozesuaren nolabaiteko bertikalitatearen aldean, orain prozesu horizontalagoa erakitzen ari da, eragileen arteko horizontalitate handiagokoa. Eta horrek konpromisoak eta bermeek sendotasun handiagoa izatea erraz dezake.

Diez: Aljerko esperientziatik hartu beharreko beste ondorio bat zera da, negoziazio prozesua gauzatu ahal izateko horretarako bitartekoak finkatzea beharrezkoa dela: solaskidetzak, konpromisoak... Aljerren ez ginen iritsi bitartekoak finkatzera. Eta nazioarteko komunitatearen parte-hartzea eta babesa gaineratu behar da. Aljerren hiruga-



EGIN egunkariak 1989ko urtarrilaren 23an, martxoaren 8an eta hilabete bereko 28an argitaratutako azalak. BERRIA

ren herrialdea bazegoen, anfitroia, baina nazioarteko komunitatetik isolatua zegoen prozesua. Gaur egun hori bideratzeko saioa dago, ETaren gutunarekin, Europako Batasunaren erantzunarekin... Gai hau funtsezkoa izan daiteke diseinu orokorrerako. Eskarmentuak esaten digu hori finkatzen ez badugu, negoziazio prozesurik ez dagoela.

Zer azterketa egiten duzue Estatuaren orduko eta gaur egungo jarreraz?

Iruin: Estatuak beti izan ditu barietateak. Kontraesanak negoziazioari buruz: ETA polizia berehalakoan garaituko dutela uste dutenak daude alde batetik, eta elkarriketaren aldeko apustua egiten dutenak, bestetik. Kontraesan horiek gaur egun ere badira. PPRen posizio politikoak oso garden erakusten du hori, baina beste hainbat erakunde eta agintean ere agertzen da, hala nola botere judizialean edota Guardia Zibilean. Eta botere

judizialarena garrantzitsua izan daiteke, aginte judizialaren bareneko gaur egungo indar korrelazioa benetako oztopoa bihurtu daiteke euskal preso politikoei buruzko irtenbideari begira.

Diez: Aljerko prozesuan, ezker abertzalearen aldetik konponbiderako borondatea zegoen eta, Estatuaren aldetik, neutralizatzeo interesa. Borondatea batean, interesa bestean. Gatazkaren bilakaera politikoa neutralizatzeo interesa zuen Estatuak. Zentzu horretan bada alderik, oraingoarekin: Aljerko garaian Estatuaren interesa zen nagusia eta orain, neutralizatzeo interes hori beti izango duen arren, beharra nagusitzen da. Estatu ereduaren krisiari irtenbidea emateko beharra. Baina beti kontuan hartu beharko dugu, elkarriketa prozesua abiatuta ere, Estatuak beti saiatuko dela Estatuari jan dioguna berreskuratzen.

Iruin: Lurralde artikulazioaren

EUGENIO ETXEBESTE

«Aljer pasatu beharra zegoen; bestela, ez ginateke egongo gauden lekuan»

RAFA DIEZ

«Faktore armatuaren eragina duela 17 urte baino txikiagoa da orain»

IÑIGO IRUIN

«Zalantzarik ez dago distentsio prozesuen balioaz eta efektu politikoaz»

ereduari buruzko ahultasun estrategikoa konstantea da Estatuaren. Estatuak berezkoa du, baina, orain, ahultasun hori krisi bilakatu da, batez ere ezker abertzalearen borrokaren ondorioz eta azken urteetan jardura sozial eta politikoan ikuspegi nazionala landu eta finkatu duela. Aljerko garaian ere Estatuak jabetzen zen lurralde ereduaren ezintasunaz, baina ez zegoen krisian. Garai hartan gakoak ETaren eta Estatuaren arteko enfrontamendua zen. Orain, aldez, gakoak beste bat da: lurralde ereduaren krisian dagoela. Orain, konfrontazio armatuaren gainetik nabarmen agertzen dira osagai politikoak.

Diez: Gaur egungo faktorerik garrantzitsuenak Ipar zein Hego Euskal Herriko marko politikoaren krisia da, borroka luze bati esker sortu dena hain zuzen ere. Horrekin lotuta, gure eskubideen ukazioaren ondorioa izan baita, faktore armatua dago. Egia da faktore armatuaren eragina duela 17 urte baino txikiagoa dela, baina hori prozesu politiko baten bilakaeran kokatu behar da. Beraz, beste fase batean gaude eta, horren arabera, ezker abertzalearen ekimenak zein ekarpenak krisi honetatik Euskal Herri osorako negoziazio prozesu sendo bat abiatzea da helburua. Horretan ari gara.

aldeko su-etena hiru hilabetez luzatzea; akordio honen berri martxoaren 27an ematea. **Gobernuaren erantzuna:** Elkarriketekin jarraitzeko borondatea agertzeri mugatu zen Gobernuak, Corcuera martxoaren 28an irakurritako agiriaren bidez. Aurretik, Ajuria Eneko alderdi guztiekin bilerak egin zituen. **ETAren ultimatumak:** Gobernuak irakurritako agiria ez

zela Aljerren hitzartutakoa adierazi zuen ETak martxoaren 29an. Su-etena arriskuan zegoela, eta 24 orduko epea eman zion zuzenketa egiteko. Martxoaren 31n hirugarren agiria ateratu zuen, 72 ordu gehiago emateko zuzenketa egiteko. **Aljeriako Gobernuaren mehatxua:** ETak su-etena luzatzen ez bazuen, errefuxiatu guztiak (garai hartan 50en bat zeuden Aljerian) kanporatu

egingo zituztela mehatxu egin zion Etxebesteri Aljeriako Gobernuak, hilaren 30ean. **Azken ahaleginak:** Bitartekari aljeriarren bidez bilera egiteko proposamena egin zion ETak Gobernuari, martxoaren 31n. Vera eta Egiagarai Aljerrera joan ziren, baina zuzenean bilera egiteari uko egin zioten. Testu alternatiboak trukatu zituzten bitartekarien bidez, baina ez zuten akordiorik lortu.

Hauturaren agiria: Elkarriketak hautsi egin zirela eta fronte guztiak zabalik zituztela jakinarazi zuen ETak, apirilaren 4ko agirian. **Ajuria Eneko Itunaren agiria:** Ajuria Eneko Hitzarmenak adierazpena kaleratu zuen apirilaren 17an: «Ezin daiteke eta ez da izango negoziazio politikorik ETArekin». **Aljeriako bitartekaritzari utzi:** Aljeriako Gobernuak bitartekari

izateari utzi ziola jakinarazi zuen ofizialki apirilaren 18an. **ETAko solaskideak Santo Domingora:** ETAko solaskideak eta Soares Ganboa, Joxe Mari Gantxegi eta Angel Iturbe Santo Domingora kanporatu zituzten apirilaren 19an. **Errefuxiatuen kanporaketak:** Hurrengo hilabetean beste 21 errefuxiatu kanporatu zituzten Aljeriatik Venezuelara eta Cabo Verdara.